

**ENTIDAD PUBLICA EMPRESARIAL DE VIVIENDA – DONOSTIAKO ETXEGINTZAREN
BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA-ERAIKINEN ETA GARAJEEN GARBIKETA-
ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN
AGIRIA**

1. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN XEDEA.

1. Lizitazioaren xedea da Entidad Publica de Vivienda – Donostiako Etxegintzaren higiezinaren parkeko eraikinetako atariak, eskailerak, elementu komunak eta garajeak garbitzeko zerbitzua kontratatzea.
2. Aurreko paragrafoan deskribatutako espazioek okupatzen duten azalera eta euren ezaugarriak lizitatzailerak bakoitzak analizatuko ditu, erakinetara euren kontura egin beharko dituzten bisiten bitartez. Agiri honetako I. Eranskinean atari bakoitzeko etxebizitza kopurua eta helbideak adierazten dira.
3. Garbiketa-zerbitzua ematean **ez da zehazten** kontratuaren xedea betetzeko zentro bakoitzean egunero lan egin behar den **ordu kopurua**, zerbitzuaren kalitatea baizik.

Hala ere, enpresa kontratistek emango duten datu objektibo bat da, eta hori kontuan hartuta, Entidad Publica de Vivienda – Donostiako Etxegintzak enpresa lizitatzailerak gutxienez, derrigorrez eta eztabaidatu ezin den bete beharreko parametro bat finkatuko du. Horrenbestez, kontratazio-xede diren zentroak garbitzeko kalkulaturako eguneroko lanordu kopurua, Agiri honetako 5. artikuluko 7. puntuan adierazitakoaren arabera aurkeztu beharko duten Laneko Programan adierazi beharko dute enpresa eskaintzailerak.

4. Garbiketa-zerbitzuaren barne hartuko dira espazio eta elementu horiek garbi edukitzeko beharrezko lan guztiak. Horretarako, kopuruari eta lanbide-gaitasunari dagokienez, langile aproposak eduki behar dituzte, baita lan horiek burutzeko eraginkortasun handiko tresnak, makineriak, garbiketa-gailuak eta produktuak ere. Bertan sartuta egongo dira lanabesen eta garbiketa-produktuen hornidura, eta bilketa mota bakoitzerako bide publikoan kokatutako puntu hurbilenera hondakinak eramatea eta bertan uztea.
5. Esleitzeko helburuarekin, aurretik jada zehaztuta dagoen zerbitzua baldintza ekonomiko-administratiboen agirian adierazi diren loteetan banatu da.
6. Agiri honetan aurkeztutako garbitu beharreko eraikinen zerrendak ez dira itxiak; izan ere, kontratua esleitu ondoren, eta premia berriek hala eskatzen badute, zerrendan ez dauden beste eraikin batzuk erantsi ahal izango dira. Kasu horretan kontratua aldatu egingo da. Zerrendan, kontratistak zerbitzua eskaini beharko lukeen beste eraikin batzuk —adibidez, izenpetutako kontratuak amaitu direlako edo beste premia batzuk hauteman direlako— sartuko lituzke Erakundeak. Era berean, gaur egun eraikita ez dauden eta kontratua indarrean egongo den epean egingo diren beste eraikin batzuetara ere zabal daitezke garbiketa-lanak..
7. Kontratuaren xedearen barne sartuta daudela ulertuko da erabili beharreko garbiketa-produktuak. Bertan ere sartuta egongo dira hondakinak erretiratzea eta Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazitako eskaini beharreko prestazio guztiak.
8. Kontratua gauzatzeko garaian, egoera bakoitzerako egokienak iruditzen zaizkion garbiketa-produktuak jarriko ditu esleipendunak, betiere, ingurumen-araudiaren arabera, ezaugarri kimikoei, osagaiei, erabiltzeko moduari, toxikotasunari, segurtasunari eta erabilera-dosifikazioari buruzko zehaztapenak errespetatuz.

2. ARTIKULUA.- GAUZATU BEHARREKO JARDUERAK, ETA HAUEN ALDIZKAKOTASUNA ETA MAIZTASUNA.

Aurreko klausulan deskribatutako eraikinak eta bulegoak garbi mantentzeko esleipendunak duen betebeharrak orokorra kontratuan jasota dagoela kaltetu gabe, ondoren adieraziko ditugu gutxienez egin beharreko lan orokorrak eta hauek egiteko maiztasuna:

1. Astero, honako lan hauek egingo dira:

Eskaileren garbiketa: eskaileretako zorua erraztea, garbitzea eta desinfektatzea, baita eskailera-buruak ere. Kasu horretan, eta hala badagokio, barne hartuko dira garajera/trastelekura jaisteko/igotzeko eskailerak, bertan egon daitezkeen lanpasak altxatuta. Hormetatik, argi-puntuetatik, argietatik eta abar hautsa kentzea barne hartzen da.

Atarien eta atarietako sarrerren garbiketa: atariak erraztea, garbitzea eta desinfektatzea, atarietako sarrerren ateen atzealdea garbitzea, postontziak garbitzea eta igogailuetako kabinen atzealdea garbitzea. Eraikinarenak diren sarrera-espazioak garbitzea, atariko lanpasak barne. Hormetatik, argi-puntuetatik eta abar hautsa kentzea barne hartzen da.

Paperontziak hustea eta hondakin handienak biltzea garajeetatik.

Eraikinetan dauden komun edo lokal/areto komunak garbiketa —halakorik badago—. Elementu komunetatik sarrera duten patioak barne hartzen dira.

2. Hilero: Atariko eta, hala badagokio, eskaileretako kristalen garbiketa, markoak (barrukoak, kanpokoak) barne. Garajeetan egon daitezkeen saretak garbitzea.

Trastelekuetako korridoreen, bizikleta-gelen eta zerbitzu-gelen garbiketa: erraztu eta urez garbitu.

3. Hiru hilean behin: Lurzoru motaren arabera atariak distiraraztea edo garbiketa mekanikoa egitea.

Garajeen garbiketa mekanikoa, elementu komunei (su-hitzalgailuak, SUHak, etengailuak...) hautsa kenduz.

3. ARTIKULUA.- GIZA BALIABIDEAK

1. Garbiketa-zerbitzua kudeatzeko behar den edozein erlazio juridiko esleipendunaren kontura izango da. Horrek ezingo du, inola ere, erlazio zuzenik edo subsidiariorik eragin Donostiako Etxegintzarekin.
2. Zerbitzua behar bezala eskaintzen dela ziurtatzeko behar diren langileen kontratazioa esleipendunaren kontura izango da. Proposamenean kontratu honen ondoriozko zerbitzuak emateko esleitutako lanpostu guztien zerrenda adierazi beharko da, kontratu motaren numerazioa, esleitutako funtzioak, kategoria profesionala, lanaldia, orduak eta lanpostuaren gainerako ezaugarriak adieraziz.
3. Kontratazio publikoan klausula sozial jakinak barne hartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6. artikuluan xedatutakoa betetzeko helburuarekin, Entidad Publica Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak eskatuta, gaur egun zerbitzua eskaintzen du(t)en enpresak/ek eskaini du(t)en informazioaren arabera, aplikatzeko den hitzarmen kolektiboaren bitartez, gaur egun zerbitzu horiek eskaintzen dituzten langileen lan-kontratuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko obligazioa ezartzen zaio kontratuaren esleipendunari.

Helburu horietarako, subrogatzeko obligazio horrek eragina izango lukeen langileen kontratuen — gaur egun kontratuaren helburu diren zerbitzuak eskaintzen ditu(zt)en enpresa kontratist(ar)en arabera— baldintzen gaineko informazioa ematen da II. Eranskinean.

4. Agiri honen eskakizunen eta eskainitakoaren arabera, langileren bat ez dagoenean, hauek oporretan daudenean, gaixo daudenean, ordu sindikalak erabiltzen dituztenean, absentismoa ematen denean edo beste edozein arrazoi gertatzen denean, langile horiek berehala ordezkatzeko behar dituen langileak izango ditu esleipendunak, zerbitzua eskaintzeko garaian arazorik egon ez dadin.
5. Langileek euren lanak burutzeko eta lan horiek osasunaren eta ingurumenaren ikuspegitik modu arduratsuan egiteko prestakuntza jaso beharko dute.
6. Langile horiek ez dute inolako lan-harremanik izango Donostiako Etxegintzarekin, esleipendunaren mende bakarrik egongo direlako. Halaber, Erakundeak ez du inolako erantzukizunik izango esleipendunaren eta bere enplegatuen artean sortutako betebeharretan, lan-harremanen amaiera garbiketa-zerbitzuko kontratu hau betetzearekin, ez betetzearekin, desegitearekin edo interpretazioarekin zuzenean edo zeharka lotuta egon arren.
7. Zerbitzura atxikitako langileek legezko greba egiten badute, sortutako egoeraren eta ezarriko dituen gutxieneko zerbitzuen inguruan jakinarazi beharko dio esleipendunak Entitateari. Greba amaitu ondoren, benetan eskainitako gutxieneko zerbitzuak zein izan diren, zenbat ordu ez diren eskaini, eta grebak zein eraikinetan izan duen eragina bilduko duen txostena aurkeztu beharko du.

Dagokion fakturan, greban zehar lan egin ez diren orduen zenbatekoa deskontatuta agertuko da.

Langileei loturik, esleipendunak indarrean dauden lege-xedapenak eta kontratu hau indarrean dagoen bitartean aldarrikatuko direnak beteko ditu, lan, gizarte-segurtasun, laneko segurtasun eta higiene, eta laneko arriskuen prebentzioaren arloetan. Adierazitakoa ez betetzearen erantzukizunetik salbuetsita geratuko da Erakundea.

4. ARTIKULUA.- BALIABIDE MATERIALAK ETA ERABILI BEHARREKO PRODUKTUAK

1. 1. eta 2. artikuluetan aurreikusitako lanak gauzatzeko garbiketa-produktuak eta tresnak enpresa esleipendunaren kontura izango dira. Merkatuan daudenen artean kalitate onekoak izango dira, eta ingurumen-araudia betetzeari dagokionez, ezaugarri kimikoen, osagaien, ekintza moduaren, toxikotasunaren, segurtasunaren eta erabilera-dosifikazioaren inguruko zehaztapenak errespetatuko dituzte. Behar bezalako garbiketa egiteko behar diren kantitateak erabiliko dira eta lurzoruetara, paramentuetara eta garbitu beharreko gainerako azaleretara egokituko dira.
2. Esleipendunak ondorengo garbiketa-produktu hauek banatuko ditu:
 - a) Merkatuan dauden eta etiketa ekologikoa duten produktuak.
 - b) Birziklatzeko edo berrerabiltzeko prozesua jarraitu duten produktuak.
 - c) Berrerabil daitezkeen edo birziklatzeko aukera handia duten produktuak.
 - d) ISO ingurumen-kudeaketako sistemak jarraituz prestatu diren produktuak.
 - e) Arriskutsu gisa sailkatuta dauden osagaiak ez dituztenez, ingurumena errespetatuko duten garbiketa-produktuak erabiliko ditu.

Garbiketarako erabilitako produktuek homologatuak egon behar dute. Horretarako, produktuaren fitxa teknikoa eta segurtasunekoak aurkeztu behar dira. Erabiliko dituzten produktuek produktu

motari, markari eta konposizioari buruzko informazioa eduki beharko dute. Ontzi guztiek behar bezala etiketatuta egon beharko dute. Etiketa horietan produktuaren izen komertziala, produktu horiek dituzten konposatu arriskutsuen piktogramak eta erabiltzeko jarraibideak —batez ere dosifikazioari buruzkoak— adierazi beharko dira.

3. Zabor-poltsek plastiko birziklatuz eginak egon behar dute.
4. Hondakin birziklagarrien bilketak selektiboa izan beharko du, eta hondakin birziklaezinak, berriz, aplikatzekoa den hondakinen bilketari eta metaketari buruzko araudiaren arabera bildu beharko dira.
5. Eraikinen ezaugarriak kontuan hartuta, enpresa esleipendunak bere edo kanpoko baliabide materialak, teknikoak eta mekanikoak eduki beharko ditu, beharrezkoak diren garbiketa-puntu guztietara eta finkatutako maiztasunarekin heldu ahal izateko. Horrek ez du kostu gehiago eragingo, garbiketa-zerbitzua eskaintzeko erabilitako teknikaren, materialaren eta makineriaren konplexutasuna edozein dela ere.

Erakundeak ulertuko du esleipendun suertatzen den lizitzaileak eskaintzan proposatutako baliabide materialak nahikoak direla zerbitzua burutzeko. Eta hala gertatzen ez bada, esleipendunak, bere kontura eta arriskuarekin, zerbitzua eskaintzeko beharrezko baliabideak erabili beharko ditu. Era berean, baliabide horiek ordezkatzera eta kontserbazio- eta garbitasun-egoera onean mantentzera behartuta dago.

Erakundeak hala eskatzean, esleipendunak ikuskapen-bisitak egiteko zerbitzuko ibilgailua edukiko du. Halaber, zerbitzua behar bezala burutzen dela bermatzeko behar diren komunikazioko sistemak, baliabide teknikoak eta materialak edukiko ditu, baita eskaerak arintzeko ere, hornitzaileekin lortutako akordioen bidez.

6. Esleipendunak kontratuaren xede diren zerbitzuak burutzen dituzten langileei lan horietarako behar dituzten laneko jantziak eta uniformeak emango dizkie, langileak behar bezala jantzita eta identifikatuta joan daitezzen.
7. Kontratu hau sinatzean ez dauden material, elementu edo sistema berriak erabiltzea gomendatzen edo behartzen duten lege-xedapenak onartzen badira, esleipendunak zerbitzua eskatutako moduan eskaini beharko du. Material edo elementu berri horiek erabiltzeak ez du kontratua aldatzea edo esleipen-prezioa aldatzea eragingo.

5. ARTIKULUA.- GARBIKETA-ZERBITZUAREN KONTROLA

1. Eskainitako garbiketa-zerbitzuen kalitatea etengabe kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena dauka Entitateak, berak ezarritako langileen bitartez edo kasurako kontrata daitezkeen organoen bitartez; era horretan, kontratua agiriaren eta egindako eskaintzaren arabera betetzen ari dela bermatzeko.

Helburu horrekin, Erakundeak kontratuaren teknikari hizketakide bat izendatu ahal izango du. Teknikari horrek kontratua behar bezala gauzatzen ari dela koordinatzeko, egiaztatzeko eta zaintzeko ahalmena izango du, batez ere kontratuaren kontingentzien inguruan esleipendun bakoitzari eskatu beharreko erantzunak betetzeari buruz. Akatsak aurkituz gero kontingentzia horiek kontratuaren arduradunari jakinaraziko zaizkio.

2. Zerbitzua ematen hasten denean, enpresa esleipendunak **Kontratuaren Plana** izenekoa aurkeztu beharko du. Plan horrek eskaintza teknikoaren **Kalitate-kontrolako planean** eta **Plan eragilean** proposatutakoa garatu beharko du.

Helburu horrekin, hauek definitu beharko ditu:

- Kontratuaren solaskidea/arduraduna izendatu (harekin berehala harremanetan jartzeko behar diren datuak; bereziki telefono zenbakia).
- Lanen jarduerak, aldizkakotasunak eta maiztasunak definitzea, egun eta ordutegi zehatzak finkatuz.
- Lan hori egingo duten langile zehatzak erabakitzea.
- Organigrama, baliabide materialak, komunikazio-bideak, etab. definitzea.
- Lanen jarraipena egiteko eta gainbegiratzeko kudeaketa-tresnen definizioa, lanen kalitate teknikoaren kontrola, garbiketa-zerbitzura atxikitako langileen presentziaren kontrola, komunikazio-bideak, erreklamazioen kudeaketa, bezeroarenganako arreta, etab.

Kontratuaren Plana Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak onartu behar du.

3. Zerbitzuak betetzearen egiaztapena zerbitzuen kontrol-sistema baten bitartez egingo da, Erakundeari egokia iruditzen zaion maiztasunarekin, eta ondorengo alderdi hauetan oinarrituta:
 - A.- Jardueren kontrola: Kontratuaren Planean finkatutako zerbitzu teknikoak zein neurritan betetzen diren, haien maiztasunak eta abar egiaztatze helburua izango du.
 - B.- Lanen kalitate teknikoaren kontrola: egindako garbiketaren kalitate-maila eta sakontasun-maila egiaztatze helburua izango du.
4. Jardueren kontrolari dagokionez: esleipendunak, egunero, eraikin bakoitzeko lanak egiteko izendatutako langileen presentzia-kontrola egingo du.
5. Lanen kalitate teknikoaren kontrolari dagokionez: Erakundeak adierazitako pertsonak egingo dute garbiketa-mailaren balorazioa.

Helburu horrekin, gainbegiratzeko ibilbide edo bide batzuk jarraituko dituzte. Bertan, aztertu beharreko guneak adieraziko dituzte. Ibilbide horiek egin ondoren, hainbat **kalitate-akta** idatziko dituzte **kalitate-txosten** batean laburbilduz. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek adieraziko dituzte:

- Zona bakoitzaren garbiketa-maila eta emandako azken balorazioa.
- Hautemandako irregulartasunak, horien larritasuna eta arrazoi posibleak.
- Hartu beharreko zuzenketa-neurriak, konpromisoak eta gauzatze-epeak adieraziz.

Kalitate Aktak Erakundeko teknikariak eta enpresa esleipenduneko ordezkariak sinatu beharko dituzte. Idatzitako akten kopia bat enpresaren ordezkariari emango diote.

6. Emandako zerbitzuaren gaineko **Hileko egikaritze-txostena** egingo du esleipendunak. Hileko txosten horretan aurreko epean egindako lanak zehaztuko dira kontrol-orrien bitartez, zein egunetan eta zein ordutegirekin egin diren adieraziz, eta lan bakoitza zein langilek egin duen eta, hala badagokio, gertatu diren edo ikusi diren gorabeherak identifikatuz —langileen absentismoa, emandako zerbitzuaren kalitatea eta zerbitzua ematean garrantzitsuak diren beste alderdi batzuk—.

Kontratuaren solaskideari entregatuko dio, honek, hala badagokio, onespena emateko edo oharren atalean jasotzeko.

7. Esleipendunak, berak izendatutako zerbitzuaren hizketakidearen/arduradunaren bitartez, kontratatutako organoko langileek edo funtzionarioak egindako kontrolean egoteko eskubidea izango du.

8. Esleipendunak proposatutako zerbitzuaren arduraduna izango da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin harremanetan jartzeko hizketakidea, kontratua gauzatzearekin eta betetzearekin lotutako gai guztiak konpontzeko. Arduradun horrek zerbitzuak betetzen ote diren kontrolatuko du, hileko txostenaren bitartez.

Arduradun horrek bere langileen errendimendua eta eragiketen emaitza ona gainbegiratuko du, eta zerbitzuaren prestazioan sortutako eguneroko arazoak konponduko ditu.

6. ARTIKULUA.- SEGURTASUNA ETA HIGIENEA

Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legearen (31/1995 Legea) eta aplikatzekoa den gainerako araudiaren esparruan behartuta dauden prebentzio-ekintza guztiak burutu beharko ditu enpresa esleipendunak.

7. ARTIKULUA.- GIZARTE- ETA LAN-BETEBEHARRAK

1. Kontratu honen xede den zerbitzua ematen lan egingo duten pertsonen dagokienez, kontratista behartuta dago lan, gizarte-segurantzaren, segurtasun eta osasun, eta laneko arriskuen prebentzio arloetan indarrean dauden xedapenak betetzera, baita kontratu hau gauzatzen den bitartean indarrean sartzen direnak ere. Horretarako, xedapen horiek betetzeaz arduratuko diren organoak eratu behar dira. Gainera, kontratistak edo esleipendunak lege-xedapen horiek guztiak betetzeko behar diren langile gaituak atxiki beharko ditu lantoki bakoitzean.
2. Kontratistak, esleipendunak edo bere mendeko langileek betebeharrak horietako edozein ez betetzetan edo lan, Gizarte Segurantzaren, Segurtasun eta Osasun eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloetako xedapenak ez betetzean Entidad Publica Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak ez du erantzukizunik izango.

8. ARTIKULUA.- GARBIKETA-GREBA

Legezko greba eginez gero, enpresa esleipendunak Erakundeari greba horren berri eman beharko dio gutun edo fax bidez, edo finkatutako jakinarazpen-bidetik.

Greba amaituta, enpresak txosten bat aurkeztu beharko du. Bertan, zein zerbitzu minimo eskaini dituen eta, hala badagokio, zenbat lanordu ez diren eskaini adierazi beharko du. Dagokion fakturan, greban zehar lan egin ez diren orduen zenbatekoa deskontatuta agertuko da.

9. ARTIKULUA.- LANGILEAK ORDEZKATZEA

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak eskatuta, eta gehienez hiru eguneko epean, esleipendunak pertsona bat enpresa bertako beste batengatik ordezkatuko du, baldin eta Erakundea pertsona horren jarrerarekin, jokabidearekin eta/edo eskainitako zerbitzuarekin konforme ez badago.

Atxikitako langileek oporrak hartzen dituztenean; era horretan, Agiri honetan zehaztutako denboran prestazioa eskainiko duten langileen kopurua mantendu ahal izateko.

Enpresa esleipendunari zerbitzu honetara atxikitako langileak ordezkatzea egokia iruditzen bazaio, Erakundeari jakinarazi beharko dio, gutxienez 5 egun natural lehenago. Gaixotasun baten ondorioz baja hartzeagatik edo aurretik jakin ezin diren beste arrazoi batzuegatik langileak ordezkatu behar direnean, eta ordezkapen horiek aurretik finkatutako epean jakinarazi ezin izan direnean, ordezko pertsona lanean hasten den unean jakinarazi beharko dira. Jakinarazpen horretan adieraziko dira

langilea ordezkatu beharra eragin duten arrazoiak eta zerbitzua eskaintzen hasten den langilearen identifikazioa.

I. ERANSKINA: HELBIDEEN ETA LOTEEN ZERRENDA

2020ko LOTEA	SUSTAPENA	KALEA	ATARIA	MOTA	ETXE BIZITZA KOP.	GARAJE- PLAZA KOP.	
1	1002 - BUENAVISTA 40	BERRABEHEA	4	ATARIA	10	0	
		BERRABEHEA	6	ATARIA	12	0	
		CASARES PAS.	9	ATARIA	10	0	
		CASARES PAS.	11	ATARIA	12	0	
		CASARES PAS.	11	GARAJEAK	0	42	
	1003 - BUENAVISTA 60	BERRABEHEA	5	ATARIA	10	0	
		BERRABEHEA	7	ATARIA	10	0	
		BERRABEHEA	9	ATARIA	10	0	
		BERRABEHEA	11	ATARIA	10	0	
		BERRABEHEA	13	ATARIA	10	0	
	1004 - CONTADORES	BERRABEHEA	15	ATARIA	10	0	
		SERAPIO MUJIKA PAS.	13	ATARIA	24	0	
		SERAPIO MUJIKA PAS.	15	ATARIA	26	0	
		SERAPIO MUJIKA PAS.	17	ATARIA	26	0	
		SERAPIO MUJIKA PAS.	19	ATARIA	24	0	
			SERAPIO MUJIKA PAS.	19	GARAJEAK	0	100
	Guztira 1					204	142
	2	1016 - PAGOLA A.1 BASCONGADA 1- 7	BASCNGADA PAS.	1	ATARIA	17	0
			BASCNGADA PAS.	2	ATARIA	16	0
BASCNGADA PAS.			3	ATARIA	14	0	
BASCNGADA PAS.			4	ATARIA	8	0	
BASCNGADA PAS.			5	ATARIA	18	0	
BASCNGADA PAS.			6	ATARIA	18	0	
BASCNGADA PAS.			7	ATARIA	12	0	
BASCNGADA PAS.			7	GARAJEAK	0	111	
1017 - PAGOLA A.2 BASCONGADA 8- 14		BASCNGADA PAS.	8	ATARIA	18	0	
		BASCNGADA PAS.	9	ATARIA	18	0	
		BASCNGADA PAS.	10	ATARIA	8	0	
		BASCNGADA PAS.	11	ATARIA	16	0	
		BASCNGADA PAS.	12	ATARIA	16	0	
		BASCNGADA PAS.	13	ATARIA	14	0	
		BASCNGADA PAS.	14	ATARIA	12	0	
		BASCNGADA PAS.	14	GARAJEAK	0	102	
1018 - PAGOLA A.3 ORIAMENDI- ANDOAIN		ANDOAIN	46	ATARIA	13	0	
		ORIAMENDI PAS.	18	ATARIA	8	0	
		ORIAMENDI PAS.	20	ATARIA	12	0	
Guztira 2					238	213	
3	1008 - KAT. ELEIZEGI 19-25	KATALINA ELEIZEGI	19	ATARIA	12	0	
		KATALINA ELEIZEGI	21	ATARIA	12	0	
		KATALINA ELEIZEGI	23	ATARIA	12	0	
		KATALINA ELEIZEGI	25	ATARIA	12	0	
		KATALINA ELEIZEGI	25	GARAJEAK	0	48	
	1015 - MUNTO	GOIKO GALTZADA BERRI	8	ATARIA	8	0	
		GOIKO GALTZADA BERRI	8	GARAJEAK	0	22	

2020ko LOTEA	SUSTAPENA	KALEA	ATARIA	MOTA	ETXEBIZITZA KOP.	GARAJE- PLAZA KOP.
3	1015 – MUNTO	GOIKO GALTZADA BERRI	10	ATARIA	8	0
		GOIKO GALTZADA BERRI	12	ATARIA	8	0
		GOIKO GALTZADA BERRI	12	GARAJEAK	0	22
		GOIKO GALTZADA BERRI	14	ATARIA	8	0
	1019 - PUIO HIRU DAMATXO	HIRU DAMATXO PLAZA	9	ATARIA	30	0
		HIRU DAMATXO PLAZA	9	GARAJEAK	0	60
		HIRU DAMATXO PLAZA	10	ATARIA	30	0
	4002 - IZA PINU BIDEA	PINU BIDEA	27	ATARIA	48	0
		PINU BIDEA	27	GARAJEAK	0	48
	4005 - ARAOZ ETX. MARAÑON DR.AJ	MARAÑON DOKTOREA PAS.	22	ATARIA	56	0
MARAÑON DOKTOREA PAS.		22	GARAJEAK	0	56	
Guztira 3					244	256

4	1013 - MORLANS A.3 2-10	MORLANS PAS.	2	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	4	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	6	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	8	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	10	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	10	GARAJEAK	0	70
	1014 - MORLANS A.6 3-11	MORLANS PAS.	3	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	5	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	7	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	9	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	11	ATARIA	14	0
		MORLANS PAS.	11	GARAJEAK	0	70
	1020 – LOIOLAKO ERRIBERAK	GABRIEL M.LAFITTE,PZ	3	ATARIA	27	0
		NEMESIO ETXANIZ	1	ATARIA	25	0
		NEMESIO ETXANIZ	3	ATARIA	27	0
Guztira 4					219	140

5	1006 - ETXARRIENE	ANDER ARZELUS PLAZA	1	ATARIA	14	0
		ANDER ARZELUS PLAZA	2	ATARIA	14	0
		IRASMOENE	1	ATARIA	12	0
	1009 - LARDI ALDE	HARROBIETA PLAZA	7	ATARIA	36	0
		HARROBIETA PLAZA	8	ATARIA	23	0
		HARROBIETA PLAZA	9	ATARIA	12	0
	1010 - MARIA DOLORES GOIA	MARIA DOL. GOIA PLAZA	1	GARAJEAK	0	83
	1012 - MONS 87- 93	MONS PAS.	87	GARAJEAK	0	62
	3004 - MARRUTXIPI AM	MONS PAS.	5	ATARIA	44	0
		MONS PAS.	5	GARAJEAK	0	44
	4001 - BARATZATEGI AJ	ARGEL PAS.	2	ATARIA	67	0
		ARGEL PAS.	2	GARAJEAK	0	23
	4003 - MARRUTXIPI AJ	IGNACIO UGARTE PLAZA	1	ATARIA	61	0
IGNACIO UGARTE PLAZA		1	GARAJEAK	0	62	
Guztira 5					283	274

2020ko	LOTEA	SUSTAPENA	KALEA	ATARIA	MOTA	ETXEBIZITZA KOP.	GARAJE- PLAZA KOP.
6	1005 - ERROTABURU PZA LASARTE	LASARTE PLAZA	1	ATARIA		15	0
		LASARTE PLAZA	2	ATARIA		10	0
		LASARTE PLAZA	3	ATARIA		20	0
		LASARTE PLAZA	4	ATARIA		20	0
		LASARTE PLAZA	4	GARAJEAK		0	98
		LASARTE PLAZA	5	ATARIA		10	0
		LASARTE PLAZA	6	ATARIA		15	0
	1007 - IGELDO	ORKOLAGA AITA PAS.	14	ATARIA		6	0
		ORKOLAGA AITA PAS.	16	ATARIA		6	0
	1024 - ETXEGI 48 BOE	ILLARRA BIDEA	10	ATARIA		24	0
		ILLARRA BIDEA	10	GARAJEAK		0	48
		ILLARRA BIDEA	12	ATARIA		24	0
	4004 - MONTPELLIER AJ	BENTABERRI PLAZA	6	ATARIA			
	Guztira 6						200
7	1023 - TXOMIN ENEA 162 BOE	AÑARBE PLAZA	1	ATARIA		18	0
		AÑARBE PLAZA	1	GARAJEAK		0	162
		AÑARBE PLAZA	2	ATARIA		20	0
		FELISA MARTIN BRAVO HIRIB.	15	ATARIA		14	0
		FELISA MARTIN BRAVO HIRIB.	17	ATARIA		10	0
		FELISA MARTIN BRAVO HIRIB.	19	ATARIA		10	0
		FELISA MARTIN BRAVO HIRIB.	21	ATARIA		14	0
		JULIO MAESO	2	ATARIA		14	0
		JULIO MAESO	4	ATARIA		14	0
		JULIO MAESO	6	ATARIA		14	0
		JULIO MAESO	8	ATARIA		19	0
	SATURIO BURUTARAN	5	ATARIA		15	0	
	3005 - INTXAURRONDO 55 AM	ZARATEGI PAS.	66	ATARIA		55	0
		ZARATEGI PAS.	66	GARAJEAK		0	55
Guztira 7						217	217
Guztira						1605	1388

**II. ERANSKINA: INDARREAN DAGOEN KONTRATUA BETETZEKO ATXIKITAKO LANGILEEN
BALDINTZEN INGURUKO INFORMAZIOA**

LANGILEAK	ERDIALDEA	ASTEKO ORDUAK	ANTZINATASUN- DATA	KONTRATUAREN KODEA	KATEGORIA
1	Oriamendi pasealekua, 18	1	2013/07/15	289	GARB.
1	Oriamendi pasealekua, 20	1	2013/07/15	289	GARB.
1	Andoain kalea, 46	2	2013/07/15	289	GARB.
1	Mons pasealekua, 5	3	2013/07/15	289	GARB.
1	Mons pasealekua, 5 garajeak	0,5	2013/07/15	289	GARB.
1	Mons pasealekua 87	0,5	2013/07/15	289	GARB.
1	M.Dolores Goia Pl. 001 garajea	0,5	2013/07/15	289	GARB.
1	Ignacio Ugarte plaza, 1	3	2013/07/15	289	GARB.
1	Ignacio Ugarte plaza, garajeak	0,5	2013/07/15	289	GARB.
1	Argel pasealekua, 2	2	2013/07/15	289	GARB.
1	Argel pasealekua, garajeak	0,5	2013/07/15	289	GARB.
2	Serapio Mujica, 13	2,25	2011/12/01	200	GARB.
2	Serapio Mujica, 15	2,25	2011/12/01	200	GARB.
2	Serapio Mujica, 17	2,25	2011/12/01	200	GARB.
2	Serapio Mujica, 19	2,25	2011/12/01	200	GARB.
2	Serapio Mujica, garajeak	1,5	2012/12/ 01	200	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 2	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 4	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua,6	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 8	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 10	2	2014/02/01	289	GARB.
3	* Morlans pasealekua, 10 garajeak	0,5	2014/02/01	289	GARB.
4	Nemesio Etxaniz, 1	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Nemesio Etxaniz, 3	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Gabriel Mª Lafitte plaza, 3	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Ander Arcelus plaza, 1	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Ander Arcelus plaza, 2	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Irasmoene, 1	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Felisa Martin Bravo hiribidea, 15	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Felisa Martin Bravo hiribidea, 17	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Felisa Martin Bravo hiribidea,	2	2013/10/01	189	GARB.

LANGILEAK	ERDIALDEA	ASTEKO ORDUAK	ANTZINATASUN-DATA	KONTRATUAREN KODEA	KATEGORIA
	19				
4	Felisa Martin Bravo hiribidea, 21	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Añarbe plaza, 1	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Añarbe plaza, 2	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Añarbe plaza, 2 garajeak	0,5	2013/10/01	189	GARB.
4	Julio Maeso, 2	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Julio Maeso, 4	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Julio Maeso, 6	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Julio Maeso, 8	2	2013/10/01	189	GARB.
4	Saturio Burutaran	2	2013/10/01	189	GARB.
5	Marañon doktorea pasealekua, 22	4,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Marañon doktorea pasealekua, garajea	0,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Illarra bidea, 10	2	2018/09/05	289	GARB.
5	Illarra bidea, 12	2	2018/09/05	289	GARB.
5	Illarra bidea, garajeak	0,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, 8	1,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, 10	1,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, 12	1,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, 14	1,5	2018/09/05	289	GARB.
5	Goiko Galtzada Berri, garajeak	0,5	2018/09/05	289	GARB.
6	Berrabehea, 4	2	2010/05/06	289	GARB.
6	Berrabehea, 6	2	2010/05/06	289	GARB.
6	Casares pasealekua, 9	2	2010/05/06	289	GARB.
6	Casares pasealekua, 11	2	2010/05/06	289	GARB.
6	Casares pasealekua, garajeak	0,5	2010/05/06	289	GARB.
7	Berrabehea, 5	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea, 7	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea, 9	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea, 11	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea, 13	2	2006/06/09	289	GARB.
7	Berrabehea, 15	2	2006/06/09	289	GARB.
8	Orkolaga aita pasealekua, 14	1,5	2005/03/01	289	GARB.
8	Orkolaga aita pasealekua, 16	1,5	2005/03/01	289	GARB.

LANGILEAK	ERDIALDEA	ASTEKO ORDUAK	ANTZINATASUN- DATA	KONTRATUAREN KODEA	KATEGORIA
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza	1,25	2014/01/13	289	GARB.
9	Lasarte plaza, garajeak	0,5	2014/01/13	289	GARB.
10	Pinu bidea, 27	3,75	2014/07/05	200	GARB.
10	Pinu bidea, garajeak	0,5	2014/07/05	200	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 1	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 2	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 3	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 4	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 5	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 6	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 7	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Bascongada pasealekua, 7 garajeak	1	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, 19	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, 21	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, 23	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, 25	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Katalina Eleizegi, garajeak	0,5	2014/12/01	289	GARB.
11	Hiru- Damatxo plaza, 9	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Hiru- Damatxo plaza, 10	2	2014/12/01	289	GARB.
11	Hiru- Damatxo plaza, garajeak	0,5	2014/12/01	289	GARB.
11	Harrobieta plaza, 7	2,5	2014/12/01	289	GARB.
11	Harrobieta plaza, 8	2,5	2014/12/01	289	GARB.
11	Harrobieta plaza, 9	2,5	2014/12/01	289	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 8	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 9	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 10	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 11	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 12	2	2019/05/22	501	GARB.

LANGILEAK	ERDIALDEA	ASTEKO ORDUAK	ANTZINATASUN- DATA	KONTRATUAREN KODEA	KATEGORIA
12	Bascongada pasealekua, 13	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 14	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Bascongada pasealekua, 14 garajeak	1	2014/05/22	501	GARB.
12	Benta Berri plaza, 6	5,5	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 3	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 5	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 7	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 9	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 11	2	2019/05/22	501	GARB.
12	Morlans pasealekua, 011 garajeak	0,5	2019/05/22	501	GARB.
13	Garaje guztiak	17	2009/10/02	200	GIDARIAK
14	Kristalak eta kristalizatuak	11	2009/10/02	200	PEOI BER.
* Gaur egun 1. langileak ordezkutzen du titularrak liberazio sindikala duelako					